


Pil billean

1999ko Ekaina

14. zenbakia



Distantzia guztietara irakurtzeko
zailtasunak badituzu, hurbil zaitez
MultiOpticasera

lente
PROGRESIBORIK
onenak
VARILUX[®]
ESSILOR lente bat

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2 - EIBAR



EGUZKITARAKO
Belaurrekoa

3.500 pta-tik aurrera.



**ELGOIBARKO
HERRI
INSTITUTUA**



1999-2000



AURREINSKRIPZIOA
Ekainaren 1etik 9ra

LOGSE BATXILERGOAK A-D

- Natur eta Osasun Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Teknologikoa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK**

- Automozioa, ibilgailuen elektromekanika (2000 ordu)
- Txapa eta pintura (2000 ordu)
- Barne Merkataritza (1400 ordu)
- Erizaintza Laguntzailea (1400 ordu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- Administrazioa eta Finantzak
- Ibilgailu Autopropultsatuen Mantenua (2000 ordu)

Tel. 943 74 80 19

Faxa 943 74 82 30

e-mail : ifp.elgoibar@eas.servicom.es

GOL S.A. industriak

***Tornileria-estanzpazioa
eta extrusioa hotzean***

Tfnoa. 943 - 75 21 00

Telex 38665GOL-E

20590 SORALUZE

UDABERRI NAHASIA BAINA SANOA!!!!!!

Udaberri nahasia doa bai aurtengoa , euri eta ekaitz kontuak izan dira nagusi baina hala ere aspaldiko partez diote , hau dela benetako udaberria. Egia esan, aurtengo udaberriak ez ditu oso itsusi utzi gure herriko bazterrak; zelaiak lorez bete dira, zuhaitzak hostoz jantzi dira eta hori gutxi balitz ,badirudi denok hainbeste desio dugun bakea ate joka ari dela.Ez dago gaizki aurtengoa, batez ere pasa den urteko udaberriarekin gogoratu ezker ezta ?, baina graziak, hura ere joan zen eta hor konpon, garaian garaikoari eutsi behar (zorionez oraingoa).

Honen arira , garbi dago gainean dauzkagun ekaineko hauteskundeek ere ikutu berezi bat izango dutela , baina hala ere garrantzitsuena , datozen lau urteetan herriko alkate izango dena aukeratzea izango da. Gainera edozein partiduk irabazita ere alkate berria izango da eta hau ere pizgarri gisara ulertu daiteke.

Bestalde ekainean zorioneko beste gertaera bat ere izango da , edozein ideologiaren gaintik pozgarria izango dena. Horrenbeste urte preso eman ondoren, Joxean Arluziaga askatuko dute eta herrira itzuli ahal izango du, bere lagun eta senitartekoen ondora.. Pozgarria da guretzat ere horrelako berriak eman ahal izatea, ea Euskal Preso guztiak Euskal Herrira ekarri dituztenaren berria ere, laster ematerik dugun (herriak eskatu duen bezala).

Berri onekin jarraituz, uztailetik aurrera dena pentsatu bezala baldin badoa behintzat Pil Pilean hilero aterako dela jakinarazi behar dizuegu.

Beno, ikasleei zorte on, langilei animo eta besteok eutsi goiari, laster dator uda; jaiak, oporrak, eguzkia eta BAKEA!!! Izan ongi guztiok eta zorionak alkate berriari!!!!

Pil Pilean Herri Aldizkaria
27 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

AURKIBIDEA

Editoriala.....	1
Gutunak.....	2
Gizartea.....	3-5
Berri motzak.....	6-9
Sutondo.epelean....	10-11
Kale inkesta.....	12
Sukaldaritza.....	14
Ipuina.....	15-16
Hormatxulo.....	17
Ajenda.....	18-19
Lehiaketa.....	20



ARGITARATZAILE: Pil Pilean, 27 PK. Tel: 943 75 13 04 ERREDAKZIO KONTSEILUA: **Gizarte saila:** Eduardo Pombar, Maite Etxeberria, Egoitz Unamuno, Sabin Mendizabal. **Kale Inkesta:** Amaia Aguirre, Aitziber Gantxegi. **Sutondoaren Epelean:** Gurutze. **Homatzulotik Begira:** Maite Etxeberria. **Berri motzak:** Egoitz Unamuno **Lehiaketa:** Gurutze. **Ipuina:** Jose Ramon ARGAZKI ARLOA: Gurutze eta Amaia **HIZKUNTZA ARDURADUNA:** Pilpilean. **PUBLIZITATEA:** Elene Alberdi eta Iñaki Alberdi.. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Erredakzioa. **TIRADA:** 1800 ale.

INPRIMATEGIA: K3(Bergara) COPYRIGHT: Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea :
SORALUZEKO UDALA

Inposiziorik ez !!

**EIBAR-GASTEIZ
AUTOPISTA INPOSATU
NAHI DIGUTE!**

Administrazioak asmatu-tako IPG/NIP (Interbentzio partehartzaile Gunea) inkesta horren helburua ez zen Eibar-Gasteiz autopistaren inguruan gizartearen iritzia jakitea eta errespetatzea, baizik eta autopista honen inguruan zegoen eta dagoen polemika betiko ixilaraztea. IGP/NIP hoietan autopistaren proposamenak %15-ren sostengua lortu zuen soilik, oke-

ren baloratuena izan zelarik, oraingo errepidearen konponketaren aldeko proposamenak berriz, %67-a lortu zuen.

A-8 AUTOPISTAN PEAJE-RIK EZ!

40 urtez luzatu nahi dute, Eibar-Gasteiz autopista finantziatzeko. Baina gure us-tez A-(autopista negozio bo-robila da beraiantzat ,5.600 milioi pta. garbi urtero).

GIZARTE ETA INGURUNE-AREKIKO ERRENTAGA-RRITASUNA!

- Nekazaritzarako lur hobere-
renez jabetuko da.

- Gure ondare historiko-
artistikioetan ere eragin na-
barmena izango du.

- Gizakientzat eta animalien-
tzat, hesi izugarriak sortuko
ditu.

- 12 zabortegei, 13 km tunel
eta 9 milioi m. kubiko harri
eta lur, eragingo ditu auto-
pistaren eraikuntzak.

**Guzti honegaitik, Ekainak
12 an Bergaran burutuko
den manifestaldira deitzen
zaituztegu.**

Soraluzen mehatxuak

Gutun honen bidez, Erru-
siatik etorritako Soralu-
zen bizi den familia bati
egindako mehatxu arrazis-
tak salatu nahi genituzke.
Mehatxu hauek beste sora-
luzetar gazte batzuek egi-
nak dira, gure lotsarako.
Errusiar hauek, errusiar iza-
teagatik ez daukate zergatik
jasan behar: Goizeko 3etan
telefono dei anonimoak, be-
raien balkoi eta lehioetara
harriak botatzea, kotxeko
gurpiletan iltzeak edo tor-
niloak jartzea, semearen
ohe gainean puntadun gezi

bat aurkitzea, hemendik
alde egiteko eta hilda dau-
dela esaten jaso dituzten
mehatxuak eta horrelako
beste hainbat txarrikeri. Na-
hiz eta beraiek bizi diren
tokian bizi direlako beste
tira-bira batzuk izan jende-
arekin, zaratak etab., ezin
daitezke onartu ekintza
FASZISTA, ARRAZISTA
eta XENOFOBO hauek
inondik inora.

Senitartekoak eta lagunak

PUTOS RUSOS
ESTAIS MUERTOS ⚡
FIRMA: SORALUZE



*Kalean agerturiko zenbait
kartelt kartel*



**HNOS. BENITO
ANAIK**

MUEBLES-ALTZARIAK

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**ARMENDIA
JATETKEA**

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

NOR IZANGO DA HURRENGOA ?

Hauteskundeak gainean ditugula eta, alderdi politikoek aurkeztuko dituzten zerrenda-buruengana jo dugu hurrengo lau urteetarako dituzten asmoen berri izateko. Hurrengo hauek dira egindako galderak: 1.- Zergatik aukeratu zintuzten zerrenda-buru? 2.- Azaldu bi hitzetan zuen programa.3.-Zer esango zenioke jendeari zure alderdiari botoa emateko?4.-Nola ikusten duzu Euskal Herriaren etorkizuna?



Alberto Sudupe

- 1 .-Nahiz eta galdera horren erantzuna nire esku ez egon, esango nuke beste arlo batzuetako esperientziagatik izan dela: ikastola, zaharren egoitza, Soraluze Futbol Taldea, etab.
- 2 .-Labur esanda, gure programaren helburua da Soraluze eta soraluze-tarren hobekuntza. Babes ofizialeko etxebizitzak, urbanismo aldaketak, gazteentzat proiektu bereziak, euskera eta kultur ekintzak bul-tzatu, etab. Baina programa askoz luzeagoa da. Irakurri ezazue arretaz!

3 .-Kontuan hartzeko gure esperientzia eta ilusioa gauzak behar bezala egiteko.

4 .-Gazteen eskuetan dago Euskal Herriaren etorkizuna. Kultura eta Europako bide berri-ak izango dira, baliabideak normalkuntza eta garapena lortzeko.



Ezosi Larrañaga

- 1.-Zerrenda egiterakoan kontuan hartu zen herriaren alde,etorkizunaren alde lan egiten duen jendea. Nire kasuan,konkretuki,kontuan hartu zen lehenago hartutako esperientzia zinegotzi moduan.
- 2.- Oso zaila egiten zait lau urterako programa egin ondoren,hain labur tuta azaltzea.Lehentasunak telegrafikoki hauexek izango lirateke: ez-kertia,euskalduna,herrikoia,irekia eta goratuko dugun nekazal eta hiri-gintzako gestioa ez da izango ekosistemaren kontrakoa.

3.- Jendeari edo batipat emakume,langile,ezkertiari,abertzale,euskaltzale eta progresista di-renei esango nieke Udaletxean sartu behar garenok ez diegula huts egingo eta Euskal Herri osoan "HAIZE BERRIAK" sentitzen diren moduan gure herrian ere, sentituko ditugula.

4.- Garbi dago une honetan Euskal Herriaren etorkizuna herritarren eskuetan dagoela eta orain eraikitzen hasi garenean , inork ez gai-tuela geldiaraziko. Herriaren etorkizuna gure eskuetan dago eta IRABAZIKO DUGU!





Sole Del Bosque

1. Ideia batzuk ditudalako eta ez dagoelako ezer hoberik dauzkazun ide horiekin herrirako lan egitea baino.
2. Nahiago dut programei buruz ez hitz egitea, nire programa herriaren tzat egin dezakedan guztian lan egitea delako eta horretan arituko naiz.
3. Jendea jakinean badago udaletxean nola egin dugun lana bukatu den le gislaturan bi zinegotzi bakarrik egonda eta egin dugun obra, zinegotzi gehiago egongo bagina obra hobegoa eta haundiagoa izango litzateke.
4. Tregua egia bada eta betirako izan behar bada ikusten dut etorkizun bat gure herri honetan baina denok elkarrekin lana egiten.



Jose Luis Badiola

- 1.- Gehienbat herrian pertsona ezaguna naizelako kantua dela eta, gainera herriaren onerako denez baiezkoa eman nuen.
- 2.- Guretzat programa batasunarena da, guk denon artean egin nahi dugu udaletxean lan; hau da, alderdi guztiak bildu eta denon artean erabaki zeintzu diren herriaren eta herritarren beharrak eta be rauek konpontzen saiatu.
- 3.- Lehen aipatuaren inguruan seriotasunez lan egiten ahaleginduko garela eta herriaren onura dela gure nahi eta helburua.
- 4.- Niretzat etorkizun oso ona, azkenaldian oso giro ona dago la nerako eta hau maila guztietan, bai politiko, sozial zein beste lakoetan. Etorkizun oso esperantzatsua benetan.



ITXAROPENA
TABERNA
SORALUZE

Etxaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30

AKELARRE TABERNA

Bokatak, pizzak eta kazuelitak

Tlfnoa: 753102

SORALUZE

- 1.- Gure alderdiak,Partidu Popularrak,ahal den gipuzkoar gehienei, proiektu “popularra” hurbiltzeko helburua du,eta horregatik,nahiz eta askok kontrakoa saiatu,gure zerrendak ahal diren Udaletxe guztietan aurkezteko ahalegina egin dugu,Soraluze barne.
- 2.- Pentsatzen dugu garrantzitsuena hiritarren zerbitzurako eguneroko lana dela. Partidu Popularreko zinegotzien helburua gizarteari zerbitzu- tzea da eta udal kudeaketa egokiari laguntzea,herriko biztanleen ongizateari begira. Uste dugu,beharrezkoa dela herri bakoitzak bere erabakiak hartzea eta honela eragotzi herri bakoitza izatea, Lizarraren zerbitzura jartzen dena, nazionalistek nahi duten bezala.
- 3.- Jakinda zinegotzi bat,batez ere hiritarren zerbitzaria dela,eta horregatik hor dagoela biztanleen alde lan egiteko,gure ahalegin eta gogo bizia jarriko dugu Soraluzeko herriak garapen egoki baterako behar diren azpiegitura eta oinarriak hobetzeko,horrela etorkizuneko berme bihurtu dadin.
- 4.- Denok dakigu fronte nazionalistak bere ideiak biztanlegoarengan ezarri nahi dituela.Ez dute elkarriketarik nahi,ez bada denek beraien tesiak onartzeko,gustatu ala ez.

PP

Fco.Javier Nuñez

PIL PILEAN HILERO ZUEN ETXEETAN

EGIN BERRI

Ogi egin berria eguneko
edozein ordutan!

tlfnoa: 943-75-25-43 Santa Ana 2-4



ATXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 75 21 31
Soraluze

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia eta bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE
Telefonia: 752375



JATETXEA TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

ALAITZ TABERNA

EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE



sinatzaileak:

LIZARRA-GARAZIREN AURKEZPENA.

Joan den apirilaren 29-an, ostegunez, arratsaldeko 7,30-etan egin zen baltegietakako lokaletan Lizarra Garazi Akordioaren aurkezpena.

Lau izan ziren aurkezpena egin zuten gizonak, HB-ko Angel Mari Elkano, EA-ko Jagoba Larburu, LAB-eko Alberto El-

koro eta ELA-ko Moises Arantzeta. Laurek Euskal Herriak bizi duen egoera berria hartu zuten izpide eta horretan Lizarra-Garazik izan duen eragina azpimarratu zuten. Honekin batera akordioak zabaltzen duen bide demokratikoak euskal herritarroi gure herriaren etorkizuna erabakitzeke aukera emango digula adierazi zuten.

GAZTETXEKOEK ZENTRAL EOLIKOAK IKUSTERA IRTEERA EGIN ZUTEN.

Maiatzaren 15-ean, larunbatez, goizean 10:00-ak aldera herrian irten eta autobusean abiatu ziren Leitza aldera, bertako zentral eolikoak ikusteko asmotan. Horrela Leitza iritsi zirenean mendi buelta bat egin zuten inguruko mendietan barrena, tartean "haize errota" famatu horiek ere ikusiaz eta duten tamaina handiaz ondo jabetuz.

Eguerdi arratsalde partean Andoainera jo zuten, bertan lehenengo, eramandako bazkaria jan eta gero bertan zegoen Erdi Aroko Azoka ikusi zuten.

Iluntzean, egunari bukaera egokia emateko, Azpeitiko Añota sagardotegian afari merienda antzeko bat egin eta herrira bueltatu ziren zintzo- zintzo gauerdia baino lehen.



Zentral eoliko baten ikuspegia

LAKUESTA OPTIKA

OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU
KARRETEAK SALGAI

SANTA ANA 22C
Tel. 943 753059

20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)



TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra
hartzeko txokorik
onena!



Kalebarren 22 behea
tlnoa: 75-17-89

OKINDEGIA



MENDIZABAL

Kalebarren, 10 - Tln. 943 75 20 91
Balteguieta, 6 - Tln. 943 75 13 99
SORALUZE

EIBAR - GASTEIZ ETA A-8 AUTOPISTAREN PEAJEAREN LUZAPENAREN KONTRA MALTZAN.

Joan den maiatzaren 2-an (larunbata), Eibar - Gasteiz proiektua eta A-8 autopistaren peajearen luzapena salatu nahian, esku orriak banatzen aritu ziren Deba bailarako zenbait taldetako partaideak Maltzan. Banatutako orrietan adierazten zuten, aipatutako proiektuaren gauzatzeak, bere dimentsio izugarria dela eta, nekazaritzari, inguruneari eta jendearen bizimoduari ekarriko dizkion kalteak onurak baino askoz ere gehiago izango direla.



Bestalde A-8 aren peajearen luzatzeari dagokionez beren desadostasuna azaldu zuten eta horrenbeste erabiltzen den errepide bat, hain garesti ordaintzea, onartezina zela adierazten zuten.

Soraluzetik Eguzki, Gaztetxe eta H.B.-koek hartu zuten parte. jky

ESTAZIOAN HORMA ERORI

Estazioan maiatzaren 17an arratsaldean kamioi batek estazioko lantegi batean zama lanak egiten ari zela bertako horma jo zuen eta berau azpiko bidera erori zen. Zorionez inor azpian harrapatu ez bazuen ere, parean aparkatuta zegoen autoa bete betean jo zuen eta guztiz txikitu utzi.



ETXABURUETA KALEAN ZEGOEN ANDAMIOA LURRERA

Etxaburueta kalean aspaldi jarrita zegoen andamia lurrera erori zen ustekabean maiatzaren 16an eta honen ondorioz Enara Onederra haurra arinki zauritu zuen. Oraingoan Istripu larria izan zitekeena susto handia besterik ez da izan. Animo Enara ea bizkor bizkor sendatzen zaren!

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE

Kontulan Aholkularitza, S.L.

Asesoría Empresarial

Santa Ana, 13 - 1. Esk.
Tel. (943) 75 17 82

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)



ION IÑARRA

HARATEGIA
ETA
URDAITEGIA

Kalebarren, z/g Tfnoa: 9 43-751249
SORALUZE

GABONETAN ALE GRANTZA,
SOLDATA ETA BAKANTZA.
URTE BERRIZ ESPERANTZA.
IKUSKIZUN EDERRA DA
AZA ARTEAN BUZKANTZA.

GABON-URTE BERRI JAI
ZORIONTSU ZORIONTSUAK.

PEDRO JOSERI OMENALDIA EGIN ZITZAION.

Jadanik kartzelan hamar urte egin dituen Pedro Joseri omenaldia egin zitzaion joan den apirilean herrian.

Era askotako ekintzak antolatu ziren horretarako: 16-an (ostiralean) kontzertua antolatu zen Gaztetxean Su Ta Gar talde famatuarekin eta jendez lepo izan zen lokala. 17-an (larunbatean) berriz, hiru ekitaldi antolatu ziren; goizean mendi martxa bat izan zen mendi gainera, arratsaldean Plaza Berrian omenaldia agin zitzaion loreak, kantikak eta bertsolariek bertsoak eskeini zizkiotelarik, eta azkenik egunari bukaera on bat emateko, afari herrikoia egin zen Arrano Elkartearen trikitixa, kantu zahar eta bertsoz alaiturik.



Pedro Jose Etxeberria

IRUKURUTZETA EGUN JENDETSUA

Eguraldi honak lagunduta maiatzaren 9-an, ohitura den bezala Irukurutzeta eguna ospatu zen. Goizean 11:00-etan Bitoriano Gandiaga praile ezagunak emandako meza eta



Bergarako Kapirixo elkartearen, eremu megalitiarraren azalpenak entzun ondoren, hain estimatuak diren salda, txorixo eta ardoa dastatu ahal izan zuten Pagobedeinkatura urreratu ziren guztiek eta ez ziren gutxi izan. Badirudi urtetik urtera, eguraldiak laguntzen duenean behintzat, ohitura gogotsu mantentzen dela eta indar berriak ere hartzen ari dela gainera.

Bazkal orduan eta arratsalde partean Irukurutzetan egin zen trikiti erromeria alaia izan zen horren adierazgarri.

Eskerrikasko antolatzaileei eta hurbildu zineten guztioi, ea datorren urtean ere umore ederrean egun zoragarri bat pasatzerik izaten dugun!!

Zorionak eta eskerrikasko!!!!

Iturgintza **ITURR**

Iturgintza, gas eta kalifikazio instalazioak

Santa Ana 20

Tlf: 7512441

SORALUZE

Argitarpen honen edizioko laguntza le:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazio
fundación*

SAN ANDRES

ITURGIATZA - GASA - BEROGAILUA

Rabal, 2

Tlf: 751646

SORALUZE

JUAN MARI ARRAINDEGIA

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!!

Tfnoa: 752440

SORALUZE


II.SORALUZE SARIA ETA ADRIAN DIEZ-I OMENALDIA.

Maiatzaren 9-an, igandean, ospatu zen 23 urtez azpiko txirrindulari gazteentzako II. Soraluze Saria. Bertan 175 txirrindularik parte hartu bazuten ere, horietatik 95-ek bakarrik zeharkatu zuten helmugako pankarta.

Lasterketako irabazlea, Olarra Taldeko Iñigo Urretxua izan zen. Azpimarratzekoa da, Ruben Gorospe txirrindulari profesional ohiak zuzentzen duen talde honek egin zuen lan bikaina, lehen hiru postuetan beren taldekideak sailkatuz eta taldekako saria ere goitik behera menperatuz.

Bestalde, sari banaketa egin ondoren pentsatuta zegoen bezala, omenaldi polit bat egin zitzaion, txirrindulari munduan hainbat lorpen egin duen Adrian Diez Soraluzetarrari. Omenaldi horretan, Kirol Bazkuneko lehendakariaren eskutik plaka bat jaso zuen eta kirol alorreko zinegotziak herriaren "ikurra" ezarri zion.

ZORIONAK ETA ESKERRIKASKO SARIAREN ANTOLATZAILEEI ETA BEREZIKI ADRIANI !!!!!!!!!!!



Adrian Diez, gazte mailako Espainiako txapelduna izan zen, 1962-9-2. Bere txapeldun "banda" Ezoziko Ama Birginari eskeini zion.

Soraluzeko aek k
Euskara irakasleak behar ditu
Bidali Kurrikuluma
121.postakutxatilara

**UDAN ERE
EUSKAREN
ESKUTIK**

Uztailean euskara irakasle izateko glotodidak-
tikako ikastaroa emango da Bergaran
Informazio gehiago 943-75-14-34 tlfnoan

**Udako ikastaro
trinkoak
AEKn**

**UDA, EUSKARAZ
JANTZITA DATOR!!**

Maila guztiak
Deitu 943-75-14-34 tlfonora
Izen emateko epea ekainaren 23a

LUIS FELIPE GALARRAGA: "Alkate 24 ordutan izan behar zara"

Luis Felipe Galarraga Soraluzeako alkatea izan da 12 urtean. 1987ko udal hauteskundeetan aurkeztu zuen bere burua lehenengo aldiz. Hirugarren legegaldia bete ondoren, alkatezta uztear dagoen plaentxiar honek, denbora honetan bizi izandako nondik norakoak kontatu dizkigu.

-Zerk bultzatu zintuen alkate izatera?

Garai hartan urtebete eskas pasa zen alderdia banandu zela eta orduantxe afiliatu nintzen EAJ-an. Niri ez zitzaidan burutik pasa ere egin alkatezarako proposatuko nindutenik, orduan gaztea nintzen eta pisu handiko kargua zen pertsona batendako. Etxean ere animatu ninduten, batez ere emazteak, eta halaxe hasi nintzen.

-Nola definituko zenituzke 12 urte hauek lau hitzetan.

Hasieran esperientzia falta handia igarri nuen, nik orduan dirua, herri bateko ekonomia zer zenik ere ez nekien.

Gerora politikoki garai txarra heldu zen. Orduan gaizki pasatu nuen, esate baterako, uda-

letxean mozio politiko bat zegoenean, hiru jarrera izan behar nituen kontutan; alde batetik norberaren pentsamoldea, bestetik alderdi moduan nola jokatu behar duzun eta azkenik alkatez-

rela, ez zen lan erreza. Garai hartan "mobida" batzuk ere egon ziren, kartel batzuk tartean zirela, baina gauza horiek guztiak ahaztuta daude. Nik uste dut orain egoerak hobera egin duela. Herri mailan eta kalean beste giro bat somatzen da, lasaitasun handiagoa eta horrek ekarriko du gauzak gogo gehiagorekin egitea.

- Zein izan da hartu duzun erabakirik gustukoena eta zein atseginena?



Luis Felipe Galarraga, 12 urtez alkate.

Alkat e izendatu eta 1988ko uholdeen ondoren, azpiegitura dexente hobetu zen, ikusten ez diren gauzak, uraren alkantari-giro bat somatzen da,

lasai-

tasun handiagoa eta horrek ekarriko du gauzak gogo gehiagorekin egitea.

-Zein izan da hartu duzun erabakirik gustukoena eta zein ezatseginena?

Alkate izendatu eta 88ko uholdeen ondoren azpiegitura dexente hobetu zen, ikusten ez diren gauzak, uraren alkantari-lauak etab.

ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskaileak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona (943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S. A. L.

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
Tf.: (943) 75 21 50
Faxa.: (943) 75 21 18
SORALUZE


lauak, Urkuluko ura ekartzea, pasarela berria, gasa bideratzea, Sazia erostea...Nik gauza bat uste dut, gauza onak beti gogoratzen direla eta gauza garratzak ahaztu.Nik ez dut uste nire borondatez hartutako erabakiak kaltegarriak izan direnik, entzun entzun behar izan ditugu, horretara egiten da bat, entzutera.
-Alkate izateak ze aldaketa ekarri du zure bizitzan?

Ni neu ez naiz konturatu, baina esaten didate askok beste pertsona bat naizela, lagunek adibidez, esaten didate lehen umore hobea nuela. Orain berreskuratzea espero dut. Alkatea zara eta egia da alkatea zarela 24 orduz, edozein momentutan deitzen dizute etxera edo lanera.
-Zer egiteko gogoarekin geratu zara?

Herriko bazterrak txukuntzea, honi dagokionez arau batzuk onartu dira, batez ere, errekaldeko etxeak, Saziakoak, Gabolatzekeo hasierako etxeak dira behar handiena daukatenak.

-Zer da zure ustez errazagoa hiri handi bateko ala herri txiki bateko alkate izatea?

Nik uste dut gaitzagoa dela herri txiki bateko alkate izatea. Hiri handi batekoa izateko ahalmen handiagoa izan beharko da agian, ez dakit, baina beraiek daukaten zerbitzuekin eta ekipoekin beste gauza bat da.



Luis Felipe Galarraga bere bulegoan

Bain a egia da herriarekin ez daukatela harremanik eta hori nahiko tristea eta pobrea izango da. Lan asko eta asko ekipo baten laguntzaz egiten dute. Herri txiki batean berriz dena zuzenean egiten duzu eta horrela egin behar dela uste dut. Hemen ere ekipo bat badago, baina ezberdina da.

“Alkate batek zintzoa izan behar du”

Eman aholku pare bat alkate berri izango denari.

Lehenik eta behin zintzotasuna, bestela hobe du ez aurkeztea. Eta gero gauzak patxadaz hartzea, presa gabe ibiltzea eta hartu behar dituen erabakiak ondo pentsatzea.

-Zer eskatuko zenioke zuk herritar moduan alkate berriari.

Gabolatz kalea konpon-tzea...ja,ja,ja...

Arandela Pulituen Fabrika
Standard Tipoa, Din eta Zeta
Araua, eredu edo planoen
araberako Estanpazio Lanak



estampaciones LAGA, S/a.

Industrialdea
Telef. (943) 75 23 50 - 75 19 85
Telefaxa (943) 75 17 02

41 postakutxatila
90590 - SORALUZE
(Gipuzkoa)

JOSETXO Ardangela

**PINTXO ETA OGIBITARTEKOEN
ESPEZIALITATEA**

Atxuri, 9

SORALUZE

Tlf: 75-15-71

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

**Juan Manuel**

68 urte

Ileapaintzailea

Plaentxian preminakua izango litzake autopistia, hemen dabilen trafikuakin soluziño ona izango zan. Beste gauza bat, industria piskat bultzatu, baju dabilelako.

**Carmen Alonso**

31 urte

Garbitzailea

Umeentzako gauzak jarriko nituzke, adibidez, parkeak, kulunpixuak...honelakoak behar ditugu. Bestalde faltan botatzen dudan beste zerbait aparkalekuak dira.

**Santi Alberdi**

64 urte

Jubilatua

Gauza asko dare eitzeko eta gutxi einda. Estaziñotik hasi eta Osintxurutz trenbide zaharra konpondu, mendirado bidia hobetu eta "Sacia"ko proiektua aurrera eruatia izan leizke adibidiak.

**Monika Muro**

26 urte

Langilea

Behingoz herrixangaitik zerbait eitzeko, urte askuan dirua sobran egon da eta herrixan inbertitzeko momentua heldu da, biharrak darelako.

**Jon Elizburu**

26 urte

Mekanikoa

Jende gaztiari lan asuntuan laguntzia, udaletxiak lana pixkat inzentibau biharko leuke. Gaztientzako ez dabe ezer ein orain arte. Etxe merkiak ein biharko leukiez herritik kanpora ez juateko, babes ofizialeko etxiak.

**Tere Arizaga**

53 urte

Umezaina

Lehenengo gauzia Txurruketik trenbiderako zubixa eta gero, herrixa txukundu daren parkietan lorak jarrita eta balkoietatik beste "traste" guztiak kendu eta lorak bakarrik lagata.

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA



Erretegi
Jatetxea
ESOZIA

B° Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Ekainaren 23an


San Juan bezpera dugunez herritar guztiei deialdi zabal bat egiten zaie ekainaren 2an gaueko 9etan egingo den bileran parte har dezaten. Bileran sogin dantza ikasteaz gain egun horretarako jaialditxoa prestatzeari ekingo diogu. Pil pilean, maixuen etxea behea erdia. **Zatoz!!**



ALDATZE

HASI ETA HEZI GUREKIN!

2 urtetik 18rainoko neska mutilei eskainia



- *Fakultate
- *Eskola Unibetsitario
- *edota Bigarren mailako Lanbide-Heziketa zikloa

GUZTIETARA HELTZEKO BATXILERGOAK

- *Jantokia
- *Frantsesa
- *Ingelesa
- *E.G.A.

EKINTZA OSAGARRIEKIN BOROBILDUA

ALDATZE KALEA, 5.
tlfnoa: 943-70-11-50
Faxa: 943-70-13-04

Matrikula epea zabalik, ekainaren 1gotik 9ra bitartean


MARI KARMEN KORTA

Mari Karmen guztiontzat da ezaguna, berak, senarra eta huen hiru alabekin batera baitaukatete momentu hauetan Itxaropenaren kargua.

Mari Karmenek oso gogoko du pertsona nagusiak zaintzea, jubilatuetako lana hain zuzen ere, eta, bai bera, bai bere etxeakoak ere, oso gustora omen daude lan honetan.

Emakume hau gazte-gaztetandikan aritu da sukaldeko lanetan, jatetxe desberdinetan, eta oso gauza goxoak gertatzen omen ditu.

Pil-pilean aldizkariari bere plater berezietako bat ezagutzeko aukera eman dio, bere truko eta guzti, eta orri honen bitartez, beti bezala zuei eskeintzen dizuegu egiten animatu zaitezten. **Animo ba!!**



Mari Karmen bere lantokian

IDI “ESPALDILLAK” SALTSAN

Osagaiak: : Elaborazioa:

(6 pertsonentzat)

- 1 Kg “espaldilla”
- 4 porru
- 5 azenario
- 3 kipula
- 2 txalota
- olioa
- koinak kopa bat
- idarrak

Lapiko batean olioa ipini. Ondoren, porruak, azenarioa, kipula eta txalota txikitu eta bertara bota. Egiten dagoela, kopa bat koñak bota eta lapikoa sutatik kendu gabe koñaka erretzen utzi. Haragia beste guztiarekin jarri, buelta batzuk eman eta gero okela guztia urez estali.

Guzti hau ordu betez utzi beharra dago egosten su motelean. Egosi ondoren, pixkat hozten utziko da, okela lapikotik atera ete beste guztia txiki txiki eginez. Okela zatitu egingo da tamainu egokietan. Saltsari idarrak botatzen zaizkio.

trukua: Okela urez estaltzerakoan, taza bat kafe bota ahal zaio okela xamurragoa egon dadin.

On egin !!

Kontaketa historiko filosofikoak

Bizi izan dira Grezia aldeko lurraldeetan filosofo asko, haietatik, hona hemen batzuen pentsakera eta bizitzako une batzuk.

Haietako bat Aristoteles, Estiagiran jaioa, peripatetika deitu zen eskola filosofikoaren sortzailea, jarraitzaileak, eskolastikoak deitu izan ziran; korronte honen oinarria jakintza guztiak zentzuetatik datozela.

Munduko inteligentzia zabalenerako bat izan zen.

Maixu-tzat Platon izan zuen, bere izena Aristoklates zen, baina Greziako ohitura aristokratikoak jarraituz Platon ezizena hartu zuen, esanahia zabala; arimaren hilezkortasunean sinisten zuen. Estatu ideal bat eraiki eta zeukan jatorria aurkezten digun lehen filosofo politikoa.

Estatu honen zentzua, berekoikeriak gainditzea gizartearen alde izango litzateke, gizatasun eta oinarri ekonomikoez gain. Bere korronteak kristauen asmo eta ideiekin antzekotasun batzuk dauzka.

Baina Greziako egiazko printzea "Socrates" izan zen filosofo askoren maixu, keriak eta aurreiritziak borrokatu zituen, bereziki demokrasiaren gehiegikeriak. Zeukan ikasbidea

goitiarra, moralista gogorra, bere pobrezia gorai patzen zuen eta ez zion inori deus kobratzen bere ikasketegaitik. Platon Genofonte, Alsibiades izan ziren bere ikasleotariko batzuk. Ateotzat eta gazte usteltzailatzat Melitosengandik salatua izan zen. Jainkoen pluralitateaz barre egin eta Jaingoiko bakarra onartzen zuelako, zikuta deitzen den pozoina hartzera behartua izan zen. Esaten dutenez, pozoiz betetako kopa bat bere ezpainetara hurbildu, eta edan zuen heriotza estoikoen sinpletasun eran eskuratzen; arimaren hilezkortasuna hitzaldi dotore bat ahoskatuz, bere jarraitzaileek negarrez entzuten zuten artean.

Diogenes, dugu beste haietako filosofo bat, ezizezez zinikoa. Icezio bere aita zen eta biak Korintion bizi ziren. Aitak, gizartearen diruak zaintzeko konfidantza zeukan; diru xahutzea leporatu eta biak atzerriratu zituzten, honela Diogenes, Atenas hiriburuan babestu eta Antistenesek sortutako korronte filosofikoaren jarraitzaile egin zen, zinikoak deitu zirenak.

Korronte hau, bizitza moralista baten alde mintzaten zen, horregatik ez ziren asko jarraitzaileak. Diogenes

dugu bere ordezkari gorenena. Handik aurrera, bizitza ez normal bat eraman zuela diote: Jantzkerak zarpaila, oinutzik zebilen, eskuko aurrean eraten zuen, batutako fruitu eta barazkiak baita ogi koxkorrak ziran bere janaria. Kupela batean lo egiten zuen. Irakurritak daukat, egunez kriselu bat pizten zuela esanez, gizo baten bila zebilela, ez duin kontsideratzen baitzuten ezagun guztiak.

Orduan, munduko enperadore izan zena, Alejandro Magno bere ospez jabetu eta behin bere osteekin Diogenes bizi zen lurraldeetan ekinaldietan zebilela, non zegoen adituta kupela ondora hurbildu eta eguzkira begira aurkitu zuen Diogenes jaunak. Hain onak ziren bere buruaz eta pentsakeraz egiten ziren iritziak ze honela esan bait zion:

-Zutaz ondo hitz egin didate eta munduko mandatarari nagusia naizenez, eskatuiezadazu nahi duzuna eta emango dizut.

Eta begirada lasai batekin esan zion:

-Mesede bat eskatuko dizut, nere aurretik kendu zaitez, ez dut eguzkia ikusten eta.

Jesukristo gurutzatu baino 356 urte aurretik hil zela, urrun zegoen uharte batean, 18 urte lehenago jaio zen beste filosofo ospetsu bat ere izan zen; Epikuro deitu zuten, Greziako hiriburua gehienetan ibili zen jakintsuekin ikasten, baita maixu bezela ere.

Tradizioak idilikoki marraztu zuen lorategi batean babestua, (errealitatean hortu bakan eta apal bat zena) bizitza eraman zuen.

Sarreran zegoen inskripzio batean honela zioen: "Ostari hemen gustora aurkituko zera, gozamena eta poza dira ondasun gorenak".

Bizimodu lasaia, lagun artea, ondasun materialaren eta boterearen gaitzepea.

Natura eta jakituriarekin harreman sendoa, irakasten zituen. Bere etsaiak gaizki interpretatu, eta nahasten ahalegindu ziran, inoiz ulertu ez zuten gozamenaren filosofia, bere egiazko zentzua zoriontasunez bizitza litzateke.

Hantxe bizi izan zen heriotzera heldu zen uneraino, 71 urte bete zituen arte.

Estoa deitzen zen, Atenas hiriburuko elizpean biltzen ziran Zenon sortutako beste korronte filosofiko baten jarraitzaileak. Es-toikoak deitzen ziran

Korronte honen oinarriak hauek dira:

-Sentimenduen jabe-
goa

-Indarra

-Tinkotasuna

-Gizagor gor jasankor
aldaezin eta eraman haundi-
koak

-Berdintasun eta ke-
men iraupena

-Adimen orekatu eta
berezkotasuna bilatzen zuten

Munduan jasaten den
ustegabeari aurre egiteko,
zihurtasuna bilatzen zuten.

Orainean bizitza funt-
sezko oinarria litzateke, al-
ferkerian eta inketan jauzi
gabe, bizitzak dakarren
uneetan eta beste gizakiekin
gizarte bizitzan jakinduriaz
moldatzen eta burutik beha-

rezko ez diren pentsamen-
tuak baztertuz, ez dutelako
baliorik eta trikimailu, na-
haste, penak eta minak haun-
ditzen dituztelako.

Laburki, Jainkoa bal-
din badago dena ongi dago
edo ontzat eman behar, baina
ustegabeak agintzen badu,
zure burua ez dezala gidatu.



PASCUAL CHURRUGA, S. A.
TORNILLERIA ESTAMPADA

ERREKALDE 21
Telef. (943) 751600 eta 751604
Faxa (943) 752461

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

**BATZOKI
TABERNA**

Kalebarren 26

Tlf: 75-12-12

SORALUZE

JAIOTAKOAK

- Ione Errasti Telleria (99-03-19)
- Iker Etxabe Madrid (99-04-11)
- Aitor Barrutia Aldazabal (99-04-28)

HILDAKOAK

- Felix Lizarralde Uribe-Etxeberria
- Ramona Barquin Mantecon
- Jose M^a Uzkidi Arakistain
- Agustin Kortabarria Aizpiri
- Maria Alberdi Orueta
- Francisco Gurrutxaga Urien
- Jesus Argarate Elorza
- Nieves Argarate Azkarate

Hauek izan dira ale honetan beraien laguntza eskaini dutenak:

Carmelo Mendizabal

Erlei

Justo Bodega

Elkarte Autoak

Artedi Estudio

Txuritxu

Begoña

Altuna Harategia

Celia

Arkupe

Mari Mar Harategia

Marisa Ileapaindegia

Ibai-Ondo

Santana Kirolak

Otazarri

Erosle

- + **Maiatzaren 28 an** arratsaldeko 20:00 etan jaietako bozeto lehiaketaren sari banaketa.
- + **Maiatzaren 30 ean** Kaleko VII. Margo Lehiaketa. Izen-ematea, egunean bertan goizeko 9:00 etatik 10:00 tara Udaletxeko Zinegotzi Gelan. Arratsaldeko 6:30 etan Kiroldegiko erakusketa aretoan sari banaketa.
- + **Maiatzaren 30 etik Ekainak 11 artean** Margo Lehiaketan sarituriko lanen erakusketa Udal Kiroldegiko erakusketa gelan; arratsaldeko 7 etatik 9etara, astelehenetik ostiralera eta 12 etatik 2 etara, larunbat eta igandetan.
- + **Maiatzaren 29 an** Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde Martxa Elgoibarrera. Egitaraua:
- Goizeko 11:00 etan irteera zubitik.
 - 13:00 etan Elgoibarrera iritsi eta manifestaldia.
 - Ongi-etorria udaletxeako plazan.
 - Ekitaldia eta senideei omenaldia.
 - Bazkari herrikoia.
- + **Ekainaren 5ean** Joxean Arluziagari ongi-etorria gartzelan 18 ute eman ondoren.
- + **Ekainaren 6 an XXIX. Haurren Euskal Jaia**
- 10:00 etan: Kalejira herriko txistulariakin.
- 10:30 etan: Taldeei ongi-etorria.
- 11:00 etan: Hamarretakoa dantzariantzat.
- 11:30 etan: Dantzarien kalejira herritik zehar.
- 13:00 etan: Umeak bazkaltzera eramateko banaketa.
- 13:30 etan: Triki-poteoa Larreategi taldearekin.

17:00 etan: Alardea Plaza Zaharrean

- Agurra (herri bakoitzako bikote bat)
- Neskak: Esku dantza, Zinta dantza (bizkaikoa) eta Makiltxiki-kakoa.
- Mutilak: Txankarrakoa, Jorrai dantza eta banakoa.
- Mixtoak: Makil txiki, Saint Petit eta Txulalai.
- Denok: Fandango eta Arin Arina.

Ondoren pottokak izango dira Plaza Zaharrean.

+ **Ekainaren 11 n** Ipuin Lehiaketaren sari banaketa.

+ **Uztailaren 17 an** 10:30 etan elizan "Udako Kontzertua" Ezoiziko Ama Abesbatzak eta Musika Eskolako Gazteen koruak eskainia.

+ **Uztailaren 22 an Santa Ana egunez** elizan 12:30 etan abesturiko Meza "L. Perosi" ren "Segunda pontifikal" a Ezoiziko Ama Abesbatzak eskainirik

ARCELUS LIBURUDENDA

Era guztietako artikulua

EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK

SORALUZE

Telefona: 943751143
Faxa: 943751143



aras S.A.L.

TORNILLERIA DECOLETADA

Tornutegi dekoletatua

Autzairu eta metalezko piezak

Tornutegia S/ Din arauak

Zehaztasun haundikotorlojuak

Industrialdea 20-21
50 postakutxatila

Tel: 943 75 17 36- 75 18 03
20590 Soraluze (Gipuzkoa)

JABIER
ALBERDI

HARATEGJA
Errebal kalea 24
tln: 75-19-32
Soraluze

EUSKAL
OKELA



IRATXO

GOXOTEGIA
Etxaburueta, 4
20590 SORALUZE
Telef. 943751320
943751464

EGUNKARIAK

GOIZEAN

GOIZ

MARRAZKI LEHIAKETA

Marrazkia Soraluzeko jaiei buruzkoa izango da eta hurrengo jaietako gehigarrian argitaratuko dugu.

Saria: *afaria bi lagunendako*

Adina: *Edozeinek parte har dezake*

Gaia: *Soraluzeko jaiak*

Epea: *Uztailaren 2a baino lehen*

Gogoratu marrazkia, aldizkarian zuri beltzean agertuko dela, beraz koloreek ez dute garrantzi berezirik izango.

ANIMA ZAITEZ!

eta bidalil zure marrazkia lehenbailehen


27. postakutxatilara.



Joyería IOSU, S. L.

Santa Ana, 22
Teléf. 943 75 12 77
SORALUZE

**ARANE
KIROLDEGIA
TEL.943 75 24 66**



**Enpresa
proiekturen
bat baldin baduzu...**

**... orain, gure
BABES osoa
duzu.**

**Gidalan
2000**

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren
901 200 000 telefono zenbakian,
gure WEBan: gidalan2000.com,
edo zoaz informazio txartelaren
aurkitutako dituzun zentrotako
batera.



FONDO
SOCIAL
EUROPEO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foral de Gipuzkoa
Ekonomia eta Turismo Departamentua
Departamento de Economía y Turismo



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



mikel urdangarin
"badira hiru aste"



bide ertzean
"zure minari"



**joseba tapia
koldo izagirre**
"apoaren edertasuna"



su ta gar
"1987-89"

**LAU
BITXI-
KERIA**



94 P.K.
20590 SORALUZE
Tel. 943 75 30 16
E-mail:
gaztelupeko.hotsak@eusnet.org

Denda berria



Gotzon Agirrezabal

Tel/Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA


astelehenetik zapatara:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00.



AIT-ITV eta autobus
geltokitik 100 metrora

- Alfonbrak eta moketak (fabrikatik zuzenean)
- Hondartzarako toailak (belgiarrak)

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



Amillaga industrialdea, 5 · BERGARA · Renault-en ondoan

EUSKARAZ
MAITE
ZAITUT.

æk

Izena eman æk-n.